

Irungo  
euskarazko  
hamabostekaria

# Irunero

342

Otsailak 1, 2019

**2** Irun Atzo Irun Gaur

**3** Txotx irekiera Ola sagardotegian

**4-5** Euskal Herria, harrera herria

**6** Ribera beka

**7** Jose Antonio Loidi beka

**8** Kirolak: Txingudi Errugbi kluba

**9** Kirolak: Santiagotarrak

**11** Haurren leihoa / Denborapasak

**12** Bertsoak / Gazteen lanak

**13** Beti Gazte: Irungo Emakumeak Plazara

**14** Gazte Informazioa

**15** Agenda



**ola**  
SAGARDOTEGIA  
Iñaki Bengoetxea

- Kalitatezko sagardoa, bertako sagarrekin ekoiztua.
- Asteburuetan, trikitiarekin.
- 943 62 31 30

**ZATOZ !**



Zer gertatu zen duela 100 urte Irunen?

1919 urteko otsailaren 2an kaleratutako "El Bidasoa" astekariak Irungo hirian jazotako azken gertaeren berri ematen zuen. Lau orrialdez osturik eta bost zutabetara maketatzen zen astekaria zuri-beltzean argitaratzen zen, argazki gutxirekin.

Astekariaren lehen orrialdean Lehen Mundu Gerrak mugako garraio eta komertzioei eragindako kalteak aipatzen dira. Gerrako azken mugimenduak aipatzeaz gain, gerraren ostean izandako prezio igoera izugarriaz hitz egiten da. Gerraren ondorioak Hendaiako festetan eragin zuzena izan zuten, izan ere, astekariko kronika batean kontatzen denez, urte hartako Bitxintxoak inoiz izandako festa tristenak izan ziren, zaldiko-maldiko eta inongo festa girorik gabeak.

Bestetik, Hondarribitik Hendaiara itsasotik muga zeharkatzen saiatu zen langile talde baten heriotzaren berri ematen da. Ostean, Elizondoko azken ganadu azokan abereak zein preziotan saldu diren zerrendatzen da. Bigarren orrialdean, berriz, kirolak dira gai nagusia, futbola nagusi delarik eta, Real Union eta Reala taldeen emaitzak aipatu ostean, estatuko gainontzeko talde eta txapelketa garrantzitsuei erreparatzen zaie.

Ondoren, "Kaleko kontuak" izeneko atalaren barnean irungo kaleetako gorabeherak komentatzen dira: suhiltzaileen uniforme berriak, zenbait kaleetako usain txarra, Europako Balkoia parkean desagerturiko bankuak edo azoketatik itzultzen diren animaliek goizaldean gainontzeko bizilagunak esnatzen dituztela salatzen da. Antzoki eta zinemetako programazioaren berri eman ostean, astekariaren azken orrialdeak hiriko negozioen publizitatea ipintzeko erabiltzen dira.



Ref: 30118

IRUNERO

Erredakzioa eta maketazioa:

Joseba Arozena  
Ainara Berges

erredakzioa@irunero.eus  
irunero@irunero.eus

Publizitatea:

Amaia Terrazas  
(amaia@irunero.eus)  
Ion Otxoa  
(ion@irunero.eus)  
Joseba Arozena  
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea:

Andrea Gomez Arocena

Argitaratzailea:

837 comunicación y publicidad S.L  
www.837comunicacion.com

ISSN:

1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943 04 20 52

Wegunea: irunero.eus

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak)  
diruz lagundua:

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du:



## Txotx denboraldi berriaren hasiera Ola sagardotegian



Urte berriaren hasieran ohikoa denez, urtarilaren 20ean Txotx Irekieraren ekitaldia ospatu zuten Ola sagardotegian. Enrique Aizpioleak izan zuen Irungo sagardotegiko denboraldia zabaltzeko ohorea. Irekiera ekitaldiaren ostean, maiatzeko hilabetearen amaierara arte izango da Olan sagardotegi menuaz disfrutatzeke aukera.

Sagardotegia goraino bete zen denboraldi berriari hasiera emateko. Urtero moduan, txalapartaren erritmora zabaldu ziren sagardotegiko ateak, sagardo berria dastatzeko gogoz hurbildu ziren bisitariei arrera beroa egiteko. Arantxa Lasalde musikariak azaldu zuenez, "lotura estua dago txalaparta eta sagardoaren artean, beaz, txalapartarik izan ezean, giroaren erdia faltako litzateke".

2019 urteko Txotx Irekiera egiteko ardura izan zuen Enrique Aipioleak. EAJ alderdiko zinegotzia izateaz gain, Meakako Auzo Elkarteko presidentea izandakoa da Enrique. Betidanik auzoan zein sagardotegiko lanetan laguntzeko erakutsi duen prestutasun handiarengatik hautatua izan da. Berria jaso zuenean sorpresa eta poztasun handia sentitu zuela adierazi du Aizpioleak. "Beti egun hau atzetik bizi izan dudana arren, aurten aurrean jartzea egokitu zait", azaldu zuen Enrique Aizpioleak.

**"Beti egun hau atzetik bizi izan dudana arren, aurten aurrean jartzea egokitu zait"**

Enrique Aizpiolea, Txotx Irekieran omendua

**"Aurtengo uzta kantitate aldetik eskasagoa izan bada ere, kalitate aldetik joan den urtekoa baino hobea izan da"**

Iñaki Bengoetxea, Ola sagardotegiko burua

Azken hilabeteetako lan gogorraren ostean, denboraldi berriari hasiera emateko dena prest zegoen ola sagardotegian. Iñaki Bengoetxeak sagardotegiko upategiak betetzeko adina sagardo lortu du aurten, joan den urtean izandako soberatasunak errepikatu ez diren arren. Iñaki Bengoetxeak adierazi duenez, "aurtengo uzta kantitate aldetik eskasagoa izan bada ere, kalitate aldetik joan den urtekoa baino hobea izan da".

Sagardoaren ezaugarriak dagokienez, aurtengo sagardoak joan den urtean lortutakoak baino gorputz gehiago duela adierazi du Bengoetxeak. Alkoholari dagokionez, aurtengoak alkohol apur bat gehiago izan dezakeela gaineratu du sagardotegi buruak, gehiegi nabaritzen ez den arren. Aurten, gainera, lore garaian eguraldiak kale egin zuen eta polinizazio prozesua kalteturik egon bada ere, sagardoa upeletan sarturik dago jada sagardozaileen desirak betetzeko prest.

**Giro ona, ezinbesteko osagaia**

Ola sagardotegian Txotx Irekiera ospatzen den eguna primerakoa da, sagardo berria lehen aldiz dastatzeaz gain, sagardotegiko giroaz gozatzeko. Izan ere, txalapartari, trikitilari eta bertsolariek ez zuten data garrantzitsu hau galdu nahi izan eta, urtero moduan, sagardotegiko giroa alaitzen ibili ziren.

# Harrera duin baten a



Irungo Harrera Sareak manifestazioa antolatu zuen urtarrilaren 26ean pertsona migratzaileen harrera eskubidea defendatzeko. Milaka pertsonak parte hartu zuten arratsaldeko 17:00etan abiatu zen manifestaldian, legediaren errespetua eskatu eta migratzaileek jasaten duten esplotazio, arrazismo eta berdintasun eza salatuz.

“Euskal Herria, harrera herria” leloaren azpian milaka pertsona elkartu ziren Irungo Harrera Sarearen deialdiari erantzunez. Honela, jatorri eta adin guztietako pertsonak Ficoban bildu ziren migratzaileen eskubideak errespetatu daitezela eskatzeko, hau da, pertsonen zirkulazio aserako eskubidea eta harrera duina jasotzeko eskubidea, besteak beste. Malen Garmendia, Irungo Harrera Sareko boluntarioak adierazi duenez, “beroan egiten diren itzulketak ikusten ditugu oraindik ere”.

Gainera, bertan bildutakoek Aita Mari itsasontziko kideekiko babesa erakutsi zuten ere. Aita Mari Mediterraneoan migratzaileak erreskatatzeko asmoz abiatu nahi da itsasora, baina, beharrezko baimenak ematen zaizkion arte, ezingo du bere helburua bete.

**“Beroan egiten diren itzulketak ikusten ditugu oraindik ere”**

Malen Garmendia, Irungo Harrera Sareko boluntarioa

Manifestazioak lehen urratsetan Frantzia eta Espainiako herrialdeen arteko muga zeharkatu zuen, Hendaiaiko Erretentzio Zentrora iritsi arte. Era honetan, pertsonen zirkulazio aserako oinarritzko eskubidea aldarrikatu zen era sinbolikoan. Muga zeharkatu ostean, Irungo erdigunerantz zuzendu eta San Juan plazan amaitu zen aldarrikapenez beteriko ibilbidea, hain zuzen ere, Harrera Sareak plazan duen gunearen parean.

#### Aurretiazko lana

2018 urteko uztaileko hilabetean abiatu zuen Irungo Harrera Sareak bere ibilbidea. Orduetik, egunero 24 orduz

**“Oraingo fluxua ez da udakoa bezalakoa, baina, oraindik ere etengabea da”**

Oihana Galardi, Irungo Harrera Sareko boluntarioa

eskualdera irisen diren pertsonen beharrei erantzuteko lanean aritu dira sarea osatzen duten boluntarioek. 150 boluntario inguru lanean ibili direla kalkulatu dute, gehienak irundarrak, baina, Hondarribia edo Hendaiaiko zenbait herritarren laguntza jaso dute ere.

Sei hilabete horietan zehar harrera sareak 5.000 pertsoneri harrera egin diela kalkulatu dute. Oihana Galardi Irungo Harrera Sareko kideak azaldu duenez, “oraingo fluxua ez da udakoa bezalakoa, baina, oraindik ere etengabea da”. Izan ere, urtea hasi zenetik, sareak 315 pertsona bideratu dituela kalkulatu da.

## EGUZKITZA HLHI

PROIEKTUETAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZA ESKAINTZA BERRIZTATZAILEA ETA INTEGRATZAILEA



Matrikulazio epea urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra.  
[www.eguzkitza.hezkuntza.net](http://www.eguzkitza.hezkuntza.net)

VICTORIANO JUARISTI, 1 IRUN  
TLF: 943505910  
013372aa@hezkuntza.net



# Ideko oihu bateratua



## Eskubideen aldeko manifestua

Manifestazioaren antolakuntzaz gain, Irungo Harrera Sareak manifestu bat prestatu du zirkulazio libre eta harrera duina bermatzea nahi duten pertsonen sinaduz. Izaera ezberdineko pertsona eta elkarteek manifestuan zehaztutako puntuekiko haien adostasuna erakutsi dute, hala nola, alderdi politikoak, sindikatuak, giza eskubideen aldeko elkarteak edo gizarte eta kultura erreferente ezberdina. Momentura arte, 2.500 sinadura baino gehiago bildu dira, nahiz eta oraindik manifestua sinatu eta Irungo Harrera Sarearekin bat egiteko aukera zabalik dagoen.

## Hauek dira manifestuan aldarrikatzen diren puntu nagusiak:

- Instituzioei eskubideak bermatu eta irtenbideak sortuko dituen migrazio politika garatzea eskatzen zaie.
- Giza eskubideen errespetua eta pertsonen zirkulazio askea aldarrikatzen da, era berean, pertsona ilegalik ez dagoela eta beroan egiten diren itzulketak salatzen da.
- Munduko potentzia ekonomiko nagusiek, Afrikan eta gaizki izendutako hirugarren munduan, egiten dituzten espoliozazio eta arpilatze politika neokolonialistak irmoki

salatzen dira. Hauek planetaren milioika lagun miseria edota emigraziora eramaten baitituzte.

- Honaino iristeko bere etxe eta herriak uztera behartuak izan diren pertsonentzako errespetua eskatzen da ere. Inork ez du bere edo bere seme-alaben bizitzak arrazoirik gabe arriskuan jartzen. Euskal Herriaren historia, harrera pasarteaz ez ezik, ihesaldi garaiez ere beteta dagoela gogoratu.

Urtarrilaren 26 igaro bada ere, manifestuan bilduriko eskakizunak defendatzeko lanean jarrituko dute sarean.

Neumáticos  
**txepetxa**

**NEUMATIKOEN SALMENTAN LIDERRAK,  
AUTO SALMENTAN ETA AUTOEN KONPONKETETAN LIDERRAK**

info@txepetxa.com • Letxunborro Hiribidea, 92, Irun • 943 63 13 99

## Faisaien uharteko historioaren alde ezkutua ezagutzeko proiektua

2018 urteko Ribera Beken 2. proiektua aurkeztu zen urtarrilaren 22an, astearte, Irungo CBA Udal Liburutegia. Honela, Iraitz Agirrek eta Ivan Gomezek garatutako "Faisaien Uhartea: historia kontatzeko moduak" proiektuaren nondik norako nagusiak azaldu zizkieten liburutegira hurbildu ziren irundarrei.

Irungo Udaleko Kultura arloak martxan jarritako Beka deialdi honen bitartez, arte garaikidea era berritzailean bultzatzea bilatzen da. Honela, memoria historikoa, herrialdeen arteko muga eta Bidasoa ibaiaren kontzeptuen inguruan gogoeta egitea bilatzen da.

Iraitz Agirrek eta Ivan Gomezek Irungo historian berebiziko garrantzia izan duen Faisaien Uhartea aukeratu zuten haien proiektua garatzeko. Era honetan, antzerki-formako entsegu baten bitartez eta izebergaren metafora erabiliz, Faisaien Uhartearen historia epaitu nahi izan dute. Horretarako, uhartearen historiaren inguruan liburutegian bildu izan diren bertsiio ofizialak, elkarrizketen bitartez bildutako eta ahoz aho transmititutako istorioekin alderatu dituzte.

Proiektua garatzeko beharrezkoa zen informazioa biltzeko, 8 elkarrizketatuen testigantzak jaso dituzte. Elkarrizketetan bildutako informazioa transkribatuz, garatuz eta zati ezberdinak lotuz lortu dute proiektu honen



Ref: 53193

emaitza. Iraitz Agirrek adierazi duenez, "proiektuaren emaitza collage erraldoi bat da".

Proiektuaren emaitza biltzen duen artxiboa 3 zati nagusiz osatzen da. Lehen zatian, hausnarketa artistiko bat burutu du Ivan Gomezek ideia kokatzeko. Bigarrena, berriz, zatirik luzeena da eta bertan, antzerki izaerako entsegu moduan epaiketa sinbolikoaren argudiatzeak bildu dira, elkarrizketatuen hitzei ukitu literalagoa emanez.

Bikote honek garatutako proiektuan uhartearen historia, bakea eta gerra, mugako identitatea, genero aldaketak eta boterea, ahoz ahoko kontakizunak, hizkuntzen arteko harremanak eta estatuen sorrera bezalako gaiak landu dira. "Proiektua gehiago zabaltzea ezinezkoa izan zaigun arren, gaian asko sakontzeko aukera izan dugu", azaldu du Ivan Gomezek.

### Proiektuaren aplikazioa hezkuntzan

Proiektuan lortutako emaitzekin egileek benetako ant-

zerki izaerako entsegu bat antzezteko asmorik ez duten arren, lanaren emaitza aberatsa ikusita, etorkizunean liburu formatuan argitaratzea gustatuko litzaiekeela onartu dute.

Bitarte horretan, Irungo Eguzkitza Institutuan proiektu honekin loturiko jarduerak aurrera eramango dituzte dibertsifikazio taldean. Izan ere, institutuko irakasleek ikasleei irakasten zaien historia nola jaso, ikasi eta barnatzen duten ikertzeko aukera topatu dute proiektu honetan, Irungo historiako pasarte esanguratsuak ikasleei hurbiltzeko aukeraz gain.

Horrela, Historia, Euskara, Geografia, Balioak eta Gaztelania bezalako ikasgaietako edukiak era berezian lantzeko aukera izango dute ikasleek. Ikasketa prozesua osatzeko Iraitz eta Ivanen hitzaldia izango dute behin proiektuko edukien lanketari ekiten diotenean, egileek ikasleen feedbacka jaso eta egindako lana osatzeko aukera izan dezaten.

## SAN VICENTE DE PAUL IKASTETXEA



### Etorkizunerako hezitzen

2	3	4	5	1	2	3	4	5	6	1	2	3	4
Haur Hezkuntza 2-3-4-5 urteko gelak D EREDUA				Lehen Hezkuntza 1-2-3-4-5-6 D EREDUA						Bigarren Hezkuntza 1-2-3-4 B EREDUA			

**ATE IREKITAKO JARDUNALDIA:** Urtarrilaren 26an (familientzako tailerra. 10:30-12:00 ) eta urtarrilaren 30ean (saio informatiboa) 17:00tan, ikastetxeko aretoan.

**AURREMATRIKULA EGITEKO EPEA:** Urtarrilaren 28etik otsailaren 8ra



San Vicente de Paul  
Ikastetxea — Irún

# Udal Liburutegiko erabiltzaileen euskarazko irakurzaletasuna ikertuko du 14. Jose Antonio Loidi Bekak



Jose Antonio Loidi Euskarazko Ikerketa Bekaren 14. edizioa irabazi du "Euskarazko irakurzaletasuna Irungo Udal Liburutegian" izeneko proiektuak. Lehiaketara 5 proiektu aurkeztu ziren eta Unai eta Maialen Oiartzun anai-arreba irundarren proposamena izan da garaile. Datozen hilabeteetan zehar azterketa garatzeko lanean murgilduko dira proiektu irabazleko ikerlariak.

Ikerketa martxan jartzeko ideia bi anai-arreba hauek literatura eta irakurketarekiko duten zaletasunetik piztu zen. "Neurri handi batean euskaraz bizitzeko ahalegina egiten dugun arren, gazteleraz irakurtzeko ohitura genuela konturatu ginen", azaldu du Maialen Oiartzun ikerlaria. Kezka horretatik abiatuta sortu zen irakurleen hizkuntza hautuak aztertzeko interesa. Abiapuntu moduan, beste datu batzuen artean, Siadeco Ikerketa Elkar-teak Elkar Fundaziorako egindako ikerketaren datuak kontutan hartu dituzte. Datu horien arabera, euskaldunen %54ak gazteleraz irakurtzen du, %23ak euskaraz irakurtzea hautatzen duen bitartean.

Hurrengo hilabeteetan zehar Irungo Udal Liburutegiko erabiltzaileen euskarazko irakurzaletasuna izango dute aztergai ikerlari irundarrek. Gainera, irakurleen hautuak ikertzeaz gain, liburutegiaren euskarazko eskaintzaren

**"Neurri handi batean euskaraz bizitzeko ahalegina egiten dugun arren, gazteleraz irakurtzeko ohitura genuela konturatu ginen"**

Maialen Oiartzun, ikerlaria

**"Gure ideia aplikazioa izan dezakeen proiektu bat proposatzea zen"**

Unai Oiartzun, ikerlaria

analisi ere egingo dute. Ikerketa gauzatu ahal izateko 9.000 euroko zenbatekoa jaso dute eta 12 hilabeteetako epea izango dute. Azterketa hiri osoan barrena egitea zaila zenez, ikerketa Udal Liburutegiko espaziora murriztea erabaki zuten, Irunen irakurketa eta kulturarekin

loturiko gune nagusia denez gero. Unai Oiartzun ikerlariak azaldu duenez, "gure ideia aplikazioa izan dezakeen proiektu bat proposatzea zen".


Lau fase ezberdin izango ditu ikerketak. Ikerketaren lehen zatian datu-bilketa bat egingo dute liburutegiko liburu-eskaintza, liburutegian antolaturiko ekintza osagarriak eta irakurleen profilaren analisia egiteko. Jarraian, ikerketaren alde kualitatiboari ekingo diote, liburutegiko zuzendaritza-kide, langile eta dinamizatzaleei egingo dizkieten elkarrizketen bitartez. Ostean, prozesu partehartzaile bat abiatuko dute, bilerak irekietan proiektuaren lehen zatiko emaitzak aurkeztu eta, era berean, erabiltzaileen iritzia eta proposamenak biltzeko. Azkenik, egindako lana laburbiltzen duen txostena aurkeztuko dute, ikerketaren ondorioetatik ateratako proposamenekin batera.

#### Bekaren helburua

Adopzioz eta bihotzez Bidasotarra izan zen Jose Antonio Loidi omentzea da 1999 urtearen inguruan sorturiko beka honen helburua. Horrela, euskaraz egindako ikerketa suspertu eta bultzatzea bilatzen da. Jose Antonio Loidi Euskarazko Ikerketa Bekaren deialdira aurkeztzen diren proiektuek ikerlaria ospetsuak bere bizitza zehar landutako esparruekin lotura izan behar du, hala nola, antropologia, filologia, toponimia, literatura, osasun publikoa, hidrologia edo botanikarekin.



# Txingudi Errugbi Klubak 50. urteurrena ospatuko du 2019 urtean zehar



Txingudi Errugbi Klubak klubaren 50. urteurrena ospatuko du 2019 urtean zehar. Urteurren berezia ospatzeko helburu eta jarduera berezi batzuk prestatu ditu klubak. Horrela, 2019 urtean zehar eskualdean errugbiak presentzia berezia edukitzea bilatu nahi da.

Urtarrilaren 28an Txingudi Errugbi Klubaren Egoitzan urtemuga ospatzeko antolatutako jarduerak aurkeztu ziren. Jarduerak aurkezteaz gain, 50 urteak ospatzeko sortu den klubaren ezkutu berria aurkeztu zen ere. Antolatutako jardueren bitartez Errugbiak Bidasoako eskualdean presentzia nabariagoa izatea bilatu nahi da 2019 urtean zehar. Iñaki Alberdi klubeko presidentea adierazi du, "duela 50 urte lagun talde bat elkartu, baloi bat erosi eta errugbira jolasten hasi ginen".

Hortaz gain 50 urteetan zehar egindako lana hurbildu eta ezagutarazi nahi da. Horretarako, "50 urte Eerrugbiari emanak Bidasoako eskualdean" izenaren azpian bi erakusketa antolatuko dira, bata, Irungo Amaia Kultur Zentroan ekainaren 14tik uztailaren 7ra, eta, bestea, Hondarribiko Arma Plazako erakusgelan urriko bigarren hamabostaldian. Gainera, urtemugaren inguruko sustapen bideoa aurkeztuko da ekainaren 14ean Irungo erakusketan. Abuztuko hilabeteetan zehar, 50. urtemugaren kamiseta aurkeztuko da hurrengo denboraldirako. Data zehaztea falta bada ere, bazkide fundatzaileak omentzeko ohorezko afaria antolatu nahi da ere.

Horretarako, Irungo eta Hondarribiko herritar, erakunde, enpresa eta komertzio guztien parte-hartzea bultzatu nahi da. Horrela, martxoan Komertzioen Mapa bat eratu nahi da, eskualdeko 50 denda bildu eta erakuslehoak era berezian apaintzea lortu nahi da. Bestetik, Taberna Mapa

**"Duela 50 urte lagun talde bat elkartu, baloi bat erosi eta errugbira jolasten hasi ginen"**

Iñaki Alberdi, klubeko presidentea

eratu nahi da ere, errugbi partiduak tabernetan ikusi eta Nazioarteko VI. Txapelketa eta Japoneko Errugbi Mundialaz gozatu ahal izateko.

#### Kirol jarduerak

Urteurrena ospatzeko zenbait kirol jarduera antolatu dira. Martxoaren 30ean Txingudiko Beteranoen Errugbi Touch Txapelketa antolatuko da. Oraindik data konfirmatzea falta bada ere, Nazioarteko Zazpiko Errugbi Txapelketa eta "Zazpiak bat" Emakumeen Errugbi Txapelketa eskualdean ospatzeko asmoa dago.

Ekainaren 15ean Irunen Txingudi Errugbi Klubaren Eguna ospatuko da errugbi kalejira, umeentzako puzgarriak, jokoak eta kontzertuekin. Hondarribian klubaren eguna irailaren 14an ospatuko da, jaien ostean, errugbi poteoa, kalejira eta Ardo-ran egingo den bazkariarekin.

Irungo udalak Igande Sasoi bat errugbiaren inguruan antolatzeko aukera eman die, oraindik data zehaztea falta den arren. Gainera, Hondarribian uztailaren 20ean IV. Hondarribia Beach Errugbi Txapelketa egingo da, ohiturak mantenduz, urte berezi hau ospatzen jarraitzeko.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780



CASER ANAKA

**caser**  
residencial

GURE AITONA-AMONEN  
ONGIZATEA HELBURU  
Egonaldi iraunkorrak  
eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169



CASER BETHARRAM



# Santiagotarrak klubak 254 kirolariekin ekingo dio denboraldiari berriari



Santiagotarrak Kirol Elkarteak 254 kirolariekin ekingo dio aurtengo denboraldi berriari. Urtarrilaren 16ean, asteazkenean, Amaia Kultur Zentroan antolatutako ekitaldian denboraldi berriko taldeen aurkezpena egin zen. Hortaz gain, 2018 urteko denboraldian zehar lortutako garaiak eta dominen errebasoa egin zen.

Ekitaldian, kirol kontuen errebasoa egiteaz gain, Martin Miranda klubeko kirolariak pianoan hainbat pieza jo zituen eta Mario Simancasen bakarrizketekin barre egiteko aukera izan zuten Amaia Kultur Zentrorra hurbildu zirenek. Gainera, ohitura zaharrak ez galtzeko, ekitaldian amaiera klubeko kirolari, entrenatzaile eta klubeko zuzendaritza-batzordeko kideek, Pedro Alegre udaleko kirol ordezkariarekin batera, familia argazkia atera zuten. Kirol ordezkariak 2018 urtean zehar lortutako emaitzengatik klubeko kirolariak zoriondu zituen. "Edonork ez du ibaia barnetik bizi eta hiria ikuspuntu berezi honetatik ezagutzeko aukera", gaineratu zuen Pedro Alegrek.

Antxon Arellanok klubeko presidentea adierazi zuenez, "aurpegi berri asko ikusten ditut udako ikastaroen ostean". Izan ere, urteak aurrera egin ahala, jende berri batzen da familia izaera duen klub honetara. "Zuetako

**"Zuetako batzuek nazioarteko txapelketetan parte hartuko duzue eta, zergatik ez, olinpiadetan"**

**Antxon Arellano, klubeko presidentea**

batzuek nazioarteko txapelketetan parte hartuko duzue eta, zergatik ez, olinpiadetan". Izan ere, klubeko kirolariak 2018an lehenengo aldiz hiru sailetako ordezkariak izan ditu gazte eta 23 urtez azpikoen mailako munduko lehiaketetan.

#### 2018 urteko lorpenak

Ur lasterretan, hiru kirolarik lortu zuten aurreko denboraldian nazioarteko lehiaketetan parte-hartzeko estatuko

selektzioetan sartzea: Clara Olazabal (C1), Ander Elosegui (C1) eta Joan Crespok (K1). Talde mailan, federatuen kategorian, Slalomeko Liga Nazionalan 3. postuan klasifikatzea lortu eta Promesa Gazteen Liga Nazionalan kategorian infantilean 2. lekua eskuratu zuten. Saileko arduraduna den Mikel Estonbak adierazi du, "Santiagotarrak klubak, estatu mailan, ur lasterretan erreferentziatzko kluba dela erakutsi du".

Ur lasaiei dagokionez, joan den urtean, berriz, sail honetako federatuek Espainiako txapelketetan 28 domina eta Espainiako kopetan 23 domina eskuratu zituzten. Maila nazionalan klubak 3. postua eskuratu du XVI. Ibai eta Maratoien Ligan eta 6. posizioa XVI. Gazteen Promesen Ligan. Gainera, Sergio Arana saileko ordezkariak azaldu duenez, "kategoria txikitako kirolariak primerako emaitzak eskuratu zituzten eskolarteko txapelketetan".

Azkenik, arraunean, maila nazionalan, kirolariak emaitza onak eskuratu zituzten, izan ere, Espainiako txapelketa guztietan dominak eskuratu zituzten. Gainera, Nerea Seijo, Aitzpea Gonzalez, Ander Legazkue eta Osertz Gonzalezek nazioarte mailan lehiatzeko aukera izan zuten. Iñaki Peñak saileko arduradunak adierazi duenez, "Nazioarteko mailan lehiatzen jarraitzeko, maila txikiagoetan daudenen lana beharrezkoa da".

**Ana Eguiazabal**

**Pertsonak zein taldeak kohesionatuak, zoriontsuak eta motibatuak izatea funtsezkoa da proiektu/enpresa baten etorkizuna bermatzeko!**

[www.anaeguiazabal.es](http://www.anaeguiazabal.es)  
[info@anaeguiazabal.es](mailto:info@anaeguiazabal.es)

- ✓ Saio individualak
- ✓ Egokitutako tailerrak
- ✓ Taldeentzat prestatutako tailerrak

# ACUBIk 1782 kontsulta erantzun zituen 2018 urtean Bidasoako eskualdean



ACUBI Bidasoaldeko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak 1782 kontsulta jaso zituen 2018 urtean. 336 kontsulta Hondarribiko Kahai Zaharreko bulegoan egin ziren ostegunero 10:00etatik 13:00etara eta hilabete bakoitzeko azken asteartean 16:00etatik 19:00etara. Irunen, berriz, 1516 kontsulta egin ziren Palmera Monteroko bulegoan.

Taula: Gaiaren arabera jasotako kontsulta kopuruak 2017 eta 2018 urteetan

Kontsulta gehien jaso dituzten sektoreak	2017	2018
Errentamenduak	441	467
Jabetza horizontalak (komunitateak)	290	450
Telefonia	88	141
Aseguruak	75	110
Bankuak (zoru-klausulak eta notarialak)	573	103
Etxebizitzaren salerosketa	35	67
Argia	41	62
Gremioen kontratazioa	30	44
Gas naturala / butanoa	22	28
Administrazio publikoko zerbitzuak (plusbalioa, PFEZaren errekargua, ...)	18	13

Urtero moduan errentamenduekin loturiko kontsulta gehienak errenta berrikusketa eta errenta ordainketa ezekin loturik daude. Komunitateen kasuan, bizilagun bati zorra ordaintzea eskatzeko prozesua eta komunitatean obrak egitearen inguruko kontsultak dira gehien errepikatzen direnak. Argi- eta gas-horniduren kasuan, berriz, kontsulta batzuk fakturekin loturik dauden bitartean, besteak, mota honetako enpresa zehatzen kontratazioarekin loturik daude.

Azken hilabeteetan, ordea, gizarte-bonuarekin loturiko kontsultek era nabarmenean gora egin dute. Telefoniarekin loturiko kontsulta gehienak fakturazioaren ingurukoak izan dira. Azpimarratzekoa da, gremioen kontratazioa, autoen konponketa tailerrekin eta partikularrei erositako autoen garantiarekin loturiko galdera asko jaso direla.

2018 urtean zoru-klausulen erreklamazioak eta hipoteka gastuen kontsultak jasotzen jarraitu dira, izan ere, era honetako 103 kontsulta izan dira eta. Kasu gehienetan, kontsumitzaileei haien hipotekak errebisatzen lagundu zaie, zoru-klausularik duten ikusi eta, horrela izatekotan, bankura bidaltzeko erreklamazio gutuna idazten lagundu zaie, hipoteka-gestio datuekin batera (notariotza, gestoretza, erregistroa eta 60A zerga).

Beste datu nabarmen bat internet eta etxer etxeko salerosketekin loturiko kontsulteren kopuruarena izan da, hain zuzen ere, horrelako 21 kontsulta jaso baitira. Gogoratzekoa da era honetako kontratazioek 14 eguneko uko egite epea dutela eta, gai honekin loturiko kontsulta gehienak, epe honen inguruko zalantzak direla. Kasu askotan, gainera, bezeroak erreklamazioa aurkeztera hurbiltzen direnean beranduegi izaten da epea jada pasa delako.

Gogoan izatekoa da, 2018 urtean Hondarribian jaso ziren kontsulta kopurua bertako bulegoko langilearen lan bajarengatik guztiz baldintzaturik egon direla. Hain zuzen ere, Hondarribian zerbitzua eskaintzea ezinezkoa izan denez, kontsulteren 100%a Irunen erantzun dira.

Nabarmenezkoa da ere, orokorrean, emakumeak izan direla kontsultak egitera hurbildu direnak, izan ere, 1052 emakumek erabili dutelako zerbitzua, gizonenak 730 izan diren bitartean. Kontsultak egiteko erari dagokionez, kontsultak aurrez aurre bulegoan egitea hautatzen dute Irun zein Hondarribiko erabiltzaile gehienek. Kontsultak aurrez aurre egiteaz gain, telefonoz edo posta elektronikoz egiteko aukera dago.

## Kontsultak egiteko era Irun eta Hondarribian

Kontsultak egiteko erak	Irun	Hondarribia
Bulegoan aurrez aurre	968	247
Telefonoz	478	19
Posta elektronikoz	70	0



Fernando  
Vergara  
argazkilaria

Letxumorro hiribidea 100,2º  
20305 Irun  
943 840 113 - 647 930 484

www.fotogover.com  
www.fotogoverbodas.com  
info@fotogover.com



# San Vicente de Paul - LH1

## EUSKARAREN ZUHAITZA

Aurten, Txingudi ikastolan, Euskararen eguna ospatzeko 1. eta 2. mailakoen artean bi zuhaitz egin genituen. Haur bakoitzak hosto batean idatzi zuen euskara bultzatzeko hartutako konpromisoak, euskaraz egiten ditugun ekintzak... Ondoren, gelaka hosto guztiak zuhaitzean itsatsi genituen. Zuhaitzak oso politak gelditu ziren eta ikastolako sarreran jarri ditugu zintzilik.



## Denborapasak

### Etxeko 7 objektu

GBUDDOAYUTGYBOTIUT  
 SOWNBYECEVVYJQEMT  
 OARVIRUIEIZDZAGXZ  
 UORTEUNUAYIAZBIHM  
 FJADIEVCHOZKAILUS  
 UOEUENXQUURUJYEGA  
 YPCOKXAIIOVISOOPV  
 VJEIUWKEEVIBRMEAT  
 UUQIXDEAPYSHWAWIM  
 POIYIEMLUGPTEHFOZ  
 UEYKNGLPZXIDKARYC  
 KKMBLUNYEWLTVIKSO  
 YATUWYEIFDUWEACOU  
 TKEXMAINDIREVHKXR  
 MCABBBXMOQMXTWTFY  
 RMIUA AKLAWXOOWMO  
 NEIMEUKGKZABADRZJ

		7					3
	3			2		4	
4	5			7	8	2	9
		9		6	4		2
		2				5	3
8	5	7					
5							7
			8	4		6	5
7						4	

Kuxin, ispilu, mahai, sardexka, maindire, hozkailu, gortina

**IRUNABAR**  
IRLINGO BERTSOAREN BILGUNEA



## AMETSAK ETA DESIRAK

**Egilea: Mikel Garmendia Lekuona**  
**Doinua: Aresoarren bandera**

- |   |   |
|---|---|
| <p>1)<br/>Amesten hasi ninteke;<br/>Alamedan lau bankete,<br/>Pirinioetan eskurtsio bat<br/>-Udan baliteke-<br/>Thailandian astebete,<br/>pare bat milioi billete...<br/>sarritan esna egonda ere<br/>amestu liteke.</p>    | <p>5)<br/>Nahiz eta ez den erraza,<br/>Mesedez, sofatik altxa,<br/>kalera irten, gogo bizian<br/>zuk marratzuz traza.<br/>Bizkortu zaizu arnasa<br/>Dena doa zure kasa<br/>Baina jarrera hau izateko<br/>nor dugu kapaza?</p> |
| <p>2)<br/>Maiz zeruaren erdira<br/>gabiltz ametsei begira<br/>gure desio guztiak piztuz<br/>alditik aldira.<br/>Desira horien argira<br/>hausnartzea komeni da<br/>baina ametsak noizbait egia<br/>bihurtzen al dira?</p>   | <p>6)<br/>Zer ote da guztiz grabe?<br/>minbizi bat parez-pare,<br/>edo etxetik kaleratzea<br/>banketxeen alde.<br/>Dena dugu ta halare<br/>kopeta-beltza bazpare,<br/>edozeratik kaxatzen garen<br/>gizartean gaude.</p>      |
| <p>3)<br/>Nola esan ta zer pentsa<br/>zer bihurtu da ametsa?<br/>Gure buruan zerbait badabil<br/>nahiko aldrebesa.<br/>Guztia denean beltza<br/>aurretik doa ezetza<br/>ametsen bide lagun txarrena<br/>delako estresa.</p> | <p>7)<br/>Beraz non dago problema?<br/>Thailandia zen aurrena<br/>gero dirua, ospea edo<br/>besteak duena.<br/>Izan behar da ahalmena<br/>baloratzeko garena<br/>eta momentu bakoitza dela<br/>garrantzitsuena.</p>           |
| <p>4)<br/>Goizean goaz lanera<br/>auto ilarak topera<br/>gero berriro lanera goaz<br/>lanetik etxera.<br/>Beti errutina bera,<br/>baina zertan ari gera<br/>ohartzetako urteak ere<br/>badoaz aurrera.</p>                  |   |

## Toki Alai

### ZIENTZIALARIAK GARA!!!

Gelan laborategiko jarduerak egiten ditugu gauza ezberdinak konprobatzeko.

Oraingo honetan argi zuria beste koloreetan nola deskonposatzen den ikusi dugu.

Horretarako material ezberdina erabili dugu: kartoi zati bat, erregela, margoak, guraizeak eta artilea.

Hau da jarraitu dugun prozedura:



Lehenengo, kartoiari 10 cm-ko erradioko zirkulu bat marraztu dugu.

Gero zirkulua sei zati berdinetan banatu dugu eta zati bakoitza kolore batez margotu dugu. Ortzarradaren koloreak izan behar dira orden honetan: gorria, laranja, horia, berdea, urdina eta morea.

Ondoren, borobila moztu dugu eta borobilaren erdian bi zulo egin ditugu, beraien artean 2 cm-ko distantzia egon behar da.

Hurrengo pausoa zuloetatik artilea sartzea da eta artilearen bi puntuak lotzea.



Bukaeran, artilearen bi aldeak heldu, borobila erdian mantendu eta buelta asko eman ditugu, indarrez artiletik tira egin dugu. Diskoak bueltak emango ditu eta kolore zuria ikusiko da.

Ondorioak:

Emaitza ez da berdina izan kasu guztietan, batzuetan kolore zuria ikusi da, argi zuria ortzadarraren kolore guztien elkarketa delako. Besteetan, kolore zuria ikusi ordez, urdin argia nabaritu da gehiago.

**Egileak: Vita - Anna - Elena - Uma**



**bideosare**

*Bideoak zure erara!*



- > Ikus-entzunezko proiektuak
- > Bideo grabaketa eta edizioa
- > Multimedia

[bideosare.com](http://bideosare.com)



## “Irungo Emakumeak Plazara”: emakume irundarren ahotsa

Parean Berdintasun Elkarteko kideak dira Oihana Llorente eta Miren Lantz. Azken hilabeteetan Asun Casasola Ipuin Lehiaketa antolatzea gain, “Irungo Emakumeak Plazara” proiektua aurrera eraman dute. Generoa ardatz izateaz gain, etorkinak edo adineko pertsonekin loturiko gaiak ere lantzen dituzte elkartean.

**Nola kudeatzen duzue lehiaketaren antolakuntza?**

**Miren:** Aurtengoa 4. edizioa izango da. Bidean lehiaketako antolatzaileak aldatuz joan diren arren, gu biak ia hasieratik egon gara. Gainera, denboraren poderioz, lehiaketako parte hartzaileak izan direnak, antolakuntzara batu dira eta oso pozgarria da jendea geroz eta gehiago inplikatzeko delako ikustea.

**Aurten berrikuntzarik duzue?**

**Oihana:** Bai, gazteen kategoriako adin tarte zabaldu dugu eta 10-16 bitarteko gazteei zuzendurik egongo da. Izan ere, joan den urtean Lehen Hezkuntzako ikasleentzako parte hartzea handi izan zen eta lehiaketa indarkeria matxistaren gaia lantzeko aukera bikaina dela ikusi dugu.

**Lehiaketaz gain, “Irungo Emakumeak Plazara” proiektua garatzeko aukera izan duzue. Zertan datza?**

**Miren:** Irungo historian garrantzitsuak izan diren emakumeen testigantzak biltzeko ahalegina egin dugu. Horretarako, Mertxe Trancheren laguntza ezinbestekoa izan zaigu. Informazio guztia dokumental batean bildu dugu eta Irungo eskola publikoetako 4. mailako ikasleekin lan egin dugu.

**Oihana:** Dokumentala euskaraz da, baina, itzulpen lanetan gabiltza orain otsailaren 21ean arratsaldeko 19:00etan Oiasso Museoa gainontzeko hiritarrei aurkezteko. Ostean, dokumentala plataforma ezberdinetan zintzilikatuko dugu, gure asmoa emakumeen istorioak zabaldu eta denon eskura jartzea delako.

**Zein emakume landu dituzue?**

**Miren:** Irunen 7 eskola publiko daudenez 7 emakume hautatu ditugu, horien artean, Dolores Salis, Poxpologileak, Vicenta Olazabal, Julia Iruretagoiena, Menchu Gal eta Leire landa futbolaria.

**Nolako erantzuna jaso duzue haurren aldetik?**

**Oihana:** Harridura. Irungo kale-izenen inguruan mintzatu gara haiekin eta harrituta gelditu dira Irunen emakume izena duten kale gutxi daudela ikusita. Hortaz gain, eskola bakoitzak 7 emakume horietako bat hautatu du eta hemendik kurtso bukaerara haren inguruan lan egiteko konpromisoa hartu dute.

**Etorkizunari begira, proiektu berrien bat buruan daukazue jada?**

**Oihana:** Ideia pila bat izan ditugu beti, baina, poliki-poliki gabiltza. Ipuin lehiaketarekin buru-belarri gabiltza eta Emakumeak Plazara egitasmoak mila aukera ematen dituela ikusten ari gara.

**Miren:** Parean elkartean generoa ardatz dugu etengabe, baina, etorkin eta adinekoen gaiak lantzeko proiektu oso interesgarriak sortzeko aukera dagoela dakigu. Finantziarioarengatik baldintzaturik gauden arren, proiektu berriak aurkezten jarraitzeko asmoa dugu.



**“Oso pozgarria da jendea lehiaketaren antolakuntzan geroz eta gehiago inplikatzeko delako ikustea”**

Miren Lantz, Parean Berdintasun Elkarteko kidea

**“Gure asmoa emakumeen istorioak zabaldu eta denon eskura jartzea da”**

Oihana Llorente, Parean Berdintasun Elkarteko kidea

EGUNEKO MENUA · DASTATZEKO MENUA · KARTA · PINTXOAK ETA ERRAZIOAK



San Valentín eguneko  
menu berezia

Otsailak 14

Prezioa: 30 euro



Meaka auzoa, 9 – 20305 IRUN  
Tel.: 943 841 964

FELIX MANSO IBARLA JATETXEA

info@felixmanso.com  
www.felixmanso.com



- Aurrez aurre: Irungo CBA liburutegi berrian
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: [igazte@irun.org](mailto:igazte@irun.org)
- Web gunean: [www.irun.org/igazte](http://www.irun.org/igazte)
- WhatsApp bidez: 607 771 173

## Adikzioen Plana. Eta zer diozu zuk?

Adikzioen IV. Plana

Zure iritzia jakin nahi dugu!  
Berdin du zenbat urte dituzun!

Egin zure ekarpena galdetegi soil honen bidez:  
[www.irun.org/prevencionadicciones/cuestionario-participativo.asp?id\\_idioma=2](http://www.irun.org/prevencionadicciones/cuestionario-participativo.asp?id_idioma=2)

## Like zibereskubidei!!!

### ¿Zer dira zibereskubideak?

Sarean dituzten eskubideak dira, bertan ondo sozializatzeko eta beren irudia babesteko zaindu behar dituztenak. 5 eskubide hauek izango dira kanpainaren ardatza (Unicef-ek duen definizioan oinarrituta):

Eskubidea dut errespetatu nazaten, eta nik ere besteak errespetatzen ditut.

Eskubidea dut nire identitatea, isilpeko informazioa eta pribatutasuna babesteko izan daitezkeen, eta nik ere besteak babesten ditut.

Eskubidea dut Sarean noiz eta nola parte hartu nahi dudana erabakitzeke, eta besteak ere bai.

Eskubidea dut, IKTak baliatuz, nire bizikaltasuna hobetzeko, ingurune horretan giro zintzo eta baketsuz gozatzeko, eta besteena ere hobetzen ahalegintzen naiz.

Eskubidea dut Sarean aske eta seguru sentitzeko eta besteak ere lagunduko diet hala senti daitezkeen.

### Kanpaina pausoz pauso:

Jarraian, kanpainaren oinarrituko informazioa kontsultatu ahalko duzue: zein diren zibereskubideak, kanpainaren gaioak, kanpainaren ikonoa, gaiak adingabeekin lantzeko materialak...

Lehenik, komeri da kanpainaren gida irakurtzea:  
<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ku-lturadigitala/kanpaina-pausoz-pau>

## BIDEA HARTU

Garapenerako ekintzak hegoaldeko herrialdeetan izaten dira, Amerika, Asia eta Afrikan hain zuzen ere, esperientzia hiru hilabetez, uztailetik urrira arte izango da, eta parte hartu nahi baduzu

Bete beharreko baldintzak:

1. Euskal Autonomia Erkidegoko udalerririk bateko erroldan inskribatuta egotea.
2. 1989 eta 1997 artean jaio izana, bi urte horiek barne.
3. Jarduera egingo den herrialdean erabiltzen den nazioarteko hizkuntza menperatzea.

**Izena ematea:** otsailaren 6ra arte

**Informazio gehiago:**  
<http://www.gazteukera.euskadi.eus/euskadiko-gazteak-lankidetzan/r58-6525/eu/>

## GazteARTEan KONEKTA

Gaztea zara eta programetan parte hartu, proiektuak, ekimenak gauzatu eta proposamenak egin nahi dituzu baina ez dakizu nola egin? GazteARTEan KONEKTA dugu zuri babesa emateko. Entzun nahi zaitugu eta Irungo gazteen kezkei, proposamenei, zalantzei...ahotsa eman nahi diegu. Lagunduko zaitugu eta elkarrekin zuretzako hiri bat eraikiko dugu.

### KONEKTATUKO AL DUGU?

Nerea eta Eva gara zuri entzuteko eta laguntzeko 656794372 telefono zenbakian edo e-postan gaude: [konekta@irun.org](mailto:konekta@irun.org). Nahiago baduzu, Igazten, gazte informazio bulegoan elkartu gaitzake OSTIRAL goizetan.

**Kokapena:** CBA Kulturunea, San Juan plaza, 1. solairua; Irun

**Ordutegia:** Ostiraletan, 10:00-14:00

**Posta elektronikoa:** [konekta@irun.org](mailto:konekta@irun.org)

**Telefonoa:** 656794372

ANIMATU ETA KONEKTATU!!!



**MOLDATU HOME**

INMOBILIARIA  
HOME STAGING



### MOLDATU HOME: ZURE ETXEBIZITZA SALTZEKO MODU BERRIA

Etxe bakoitza desberdina da, kontatu izuguzuzun nolako den zuri!

Higiezinen zerbitzuen kontzeptu berri bat surkatzeko dizuegu, etxebizitzaren etorkizun oraindik dagoena erakazten surkatzeko bidea erakutsi.

BIZI EKIAK saldu nahi ditugu, ez soilik metro korantak.

Inmobiliaria Urzi Golegata eta Encarni Martinez Home Staging enpresak elkarrekin, gure emakumeak, esperientziak eta gehien bat, gauzak ondo egiteko gogoa uzertuz, etxebizitzaren salmenta / alokatze zerbitzu integratu erakartzeko Home Staging teknikan. Etxebizitzak saltzeko modu eraginkorrago batekin, emakumeen azalgar jartzen gaitzake.

<https://www.inmobiliariartzigolegata.com/>

661875785  
(Urtzi)

656748202  
(Encarni)

Inungo kasinoren aldetik hurrengo sarreratik gaitzakezu,  
Jose Ramon Agirretxe Alkate Jauna 1 plazan.

<https://encarnimartinez.es/>



# Otsailak

**2**

## Lurringintza organikoko ikastaroa:

**Zer:** Bioterra 2019ko Biobeauty guneko ikastaro osagarria izango da.

**Non:** Ficoban.

**Ordua:** 10:30etatik 19:30etara.

**Prezioa:** 90 euro.

**Izen-ematea:**

[http://bioterra.ficoba.org/micro\\_Bioterra/biobeauty.asp](http://bioterra.ficoba.org/micro_Bioterra/biobeauty.asp) webgunean.

**5**

## "Irun Open Innovation"

**Zer:** Kultura berritzailea eta hiriko enpresen ehuna modernizatzea bultzatzeko ekitaldia.

**Non:** Ficoban.

**Ordua:** 9:00etatik 14:30ak arte.

**Sarrera:** Doan, aldez aurretik izena ematea beharrezkoa den arren.

**Izen-ematea:** 943 50 53 38 telefonoan edo irunon@irun.org posta elektronikora idatziz.

**7**

## Bertso gaua

**Zer:** Bertso Saioa XLX.

**Non:** Kabigorriin.

**Ordua:** 19:30etan.

**Bertsolariak:** Izarne Zelaia, Aitor Sarriegi, Aimar Karrika, Arkaitz Oiartzabal "Xamoa" eta Manu Goigana.

**Gai jartzaileak:** Oihana Aranburu eta Mikel Gartzia.

**Bertso jarriak:** Mikel Garmendia.

**9**

## Antzerkia

**Zer:** Antzerkia "Último tren a Trebinka"

**Non:** Amaia Kultur Zentroan.

**Ordua:** 20:00etan.

**Prezioa:** Sarrera orokorra 14,60 euro; Langa-beek, 14 urte beherakoek eta Gazte Txarleta dutenek 9,40 euro.

**Sarrerak:** Internet bidez, Irungo Turismo Bulegoan edo leihatilan bertan.

**10**

## Ricardo Requejo Ganbera Zikloa

**Zer:** Jesús María Castillo, Miguel Echepeare, Pedro Martínez, Miguel Sansiñena eta Juan Carlos Ribellesek osatutako metalezko bostekoaren kontzertua.

**Non:** Amaia Kultur Zentroan.

**Ordua:** 19:00etan.

**Prezioa:** 4,30 euro.

**Sarrerak:** Internet bidez, Irungo Turismo Bulegoan edo leihatilan bertan.

**14**

## Hitzaldia: "The Big Bang theory"

**Zer:** Big Bang-a eta unibertsorearen jatorriaren inguruko hitzaldia Kabigorriko Zientzi-poterearen barruan.

**Non:** Kabigorriin.

**Ordua:** 19:30etan.

**Sarrera:** Doakoa.

### Denborapasen emaitzak

G	B	U	D	O	A	Y	U	T	G	Y	B	O	T	I	U	T
S	O	W	N	B	Y	E	C	E	V	Y	J	O	E	M	T	
O	A	R	V	I	R	U	I	F	I	Z	D	Z	A	G	X	Z
U	O	R	T	E	L	U	N	U	A	Y	I	A	Z	B	I	H
F	J	A	D	J	E	V	C	H	O	Z	K	A	T	L	L	U
U	O	E	J	E	N	X	Q	U	R	U	J	Y	E	G	A	
Y	P	C	O	R	X	A	I	O	V	I	S	O	O	P	P	V
V	J	E	I	U	W	X	E	E	V	T	B	R	E	A	T	
U	U	D	I	X	D	E	A	P	Y	S	H	W	A	W	I	M
P	O	I	Y	I	E	M	L	U	G	P	T	E	H	F	O	Z
U	E	Y	K	N	G	L	P	Z	X	I	B	X	A	R	Y	C
K	K	M	B	L	U	N	Y	E	W	L	T	V	I	K	S	O
Y	A	T	J	W	Y	E	I	F	D	U	W	E	A	C	O	J
T	K	E	X	M	A	I	N	D	I	R	B	V	H	K	X	R
M	C	A	B	B	B	X	M	D	O	M	X	W	L	T	F	Y
R	M	I	I	U	A	A	K	L	A	W	X	O	O	W	M	O
N	E	I	M	E	U	K	K	Z	A	B	A	D	R	Z	J	

2	6	7	4	5	9	1	8	3
8	3	8	6	1	2	7	4	6
4	5	1	3	7	8	2	9	6
3	1	9	5	6	4	8	2	7
6	7	2	0	8	1	5	3	4
8	4	5	7	2	3	9	6	1
5	2	4	1	9	6	3	7	8
1	9	3	8	4	7	6	5	2
7	8	8	2	3	5	4	1	8

**Folder**

Paper-dendarik merkeena  
**ZIURTATUTA**

Kolon ibilbidea, 2  
(atzeko aldea)  
www.kopiar.net  
kopiar@kopiar.net  
943 63 93 01



*elatzeta*

IKASTETXEA

## KALITATEZKO ESKOLA

Matrikulazio epea:  
urtarrilaren 28tik otsailaren 8ra

Bisita eguna urtarrilaren 29an 16:15etan

Landetxa-Irun. Tel: 943 93 77 59

[www.elatzeta.eus](http://www.elatzeta.eus) [idazkaritza@elatzeta.net](mailto:idazkaritza@elatzeta.net)

